

ENTZUMENA

2.TESTUA

Euskadi Irratian Elixabete Garmendiak bere zutabea irakurriko du.
Entzungaia bi aldiz entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena:
EGIA(E) ala GEZURRA(G).

Adibidea:

0. Azken hilabeteotan hiru eskale izan ditugu etxean. (G)

1. Eskale horietako bat goizero ikusten nuen, parrandan balebil bezala.
2. Bigarren eskaleak sekulako oihuak egiten zituen, auskalo zein hizkuntzatan!
3. Eguraldiak txarrera egin aurretik desagertu ziren bi eskale.
4. Hirugarren eskalea bertan dago oraindik, eta egunero ordu berean agertzen da.
5. Eskale hau koska baten gainean esertzen da zebrabidea gurutzatu ondoren.
6. Apenas egiten du eskatzeko imintziorik, jendeak bai baitaki zertarako dagoen bertan.
7. Iruzur egindako ingeles akademian lortutako maleta dauka eskaleak.
8. Eguraldi ona nahiz txarra egin, beti teilatu azpian egoten da bisera jantzita.
9. Eskaparate aurrean ilea orrazten ikusitako gizona eta bisera zeramana pertsona bera zela konturatu zen artikulugilea.
10. Artikulugileak galdera asko egiten dizkio bere buruari eskalearen iragana jakin nahian.

Aukera ezazu erantzun zuzena **E/G** (**EGIA/GEZURRA**) hizkiak erabiliz.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
G										